



Tokiko Agenda
Agenda Local 21



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ESKOLAKO AGENDA 21- IKASTURTE HASIERAKO FOROA

Data: 2008-01-22a

Ordua: 11:00-
13:20

Tokia: Zelaieta Zentroko Margolaritza I eta II gelak

Parte hartzaileak

URRITXE- BHI:
Enara Pinaga
Laida Pagaldai
Maitane Hohn Arduraduna:
Iñaki Zabalo
LAUAXETA IKASTOLA:
Luken Hernández
Itsasne Urkiaga
Irati Puyuelo
Arduraduna: Aitor Pagaldai
EL CARMELO IKASTETXEA:
Itziar Gezuraga
Mikel Urionaguena
Julen Bikarregi.
Arduraduna: Maria Salcedo

LARREA LHI:
Jon Beobide
Nerea López
Jone Mendiogarai
Arduraduna: Miren Begoñe
del Rey
**KARMENGO AMA
IKASTETXEA**
Andoni Larrinaga
Eneko Palomero
Nahia Altube
Arduraduna:
ANDRA MARI IKASTOLA
Maite Lauzirika
Nagore Campano
Lander Cano
Arduraduna: Rosaura Jauregi
(zuzendaria: Aimara Arostegi)

Udaletxetik:

- David Latxaga- Alkatea
- Iñigo Bilbao- Ingurumena eta Garapen Iraunkorraren zinegotzia
- Josu Perea- Udal Ingeniaria
- Jone Etxebarria- Ingurumen Teknikaria

Eusko Jaurjaritza: INGURUGELA CEIDAtik:

- Joseba Etxebarria

• Landutako gaiak

- Eskolen arteko foroa zati bitan banatu zan. Lehenengo orduan, ingurumena eta garapen iraunkorreko sailetik eta udaletxeko sail ezbardinetatik eskolari zuzenduriko ekintza ezbardinen proposamen bateratua aurkeztu zan. Gainera, iazko parte hartze foroan aipatu zan, ikasleek herriko gaietan parte hartze aktiboagoa nahi ebela jasota, ikasleen artean eztabaidatzea proposatu zan udalak komentatu eutsen parte hartze tailerraren inguruan Bigarren orduan, iazko foroan aipatu ziranak gogoratu ebezan ikasleek udal ordezkarien aurrean, urtean zehar egindakoaren barri izateko.
- Lehenengo ordua:
 - Ingurumena eta Garapen Iraunkorra, Euskera eta Ongizate Sailetatik egiten izan da orain arte herriko ikastetxeekin lan. Orain arte, arlo bakoitza bere aldetik lanean aritu izan da eta behin baino gehiagotan proposaturiko ekintzak errepikatu egin izan dira. Gainera, noizbait gertatu izan da arlo ezbardinetatik eskoletako ordezkari ezbardinei batzarrak egun bardintsuetan planteatu izana. Aurten, holakorik barriro gertatu ez daiten, udal baliaabideak era eraginkorrago batean erabili izan ahal izateko eta udala eta ikastetxeen arteko erlazioa ere errezagoa eta eraginkorragoa izan daiten 2008 urteko programa bateratu bat aurkeztu dogu.
 - Programa hau ikasle eta irakasleen artean aurkeztu zan ekintza ezbardinei buruz azalpena emon eta ekarpenak batzeko. Programa hau, akta honen eranskinen artean dago.
 - Beste alde batetik, aurreko ikasturteko ikasleen iradokizunari erantzuna emon nahian, Udalak ikasleek ere herriko gaietan parte hartze aktiboa izateko proposamena luzatu egin deutse. Proposamena, ez da itxia izan nahi eta Forora hurbildutakoekin adostu nahi izan da. Printzipioz, parte hartze talde bat osatzeko asmoa azaldu da, eskolaz kanpoko orduetan batuko litzatekena, eta bertara hurbildutako ikaslegoaren ardurak edo interesen arabera gai ezbardin batzuk landuko leukezana. Proposamen hau forora hurbildutako ikasleek ez eben oso argi ikusten, eskolaz kanpoko ekintza moduan planteatzeak, ikasleek garatzen dabezan beste ekintza batzuekin batera egitea suposatu daike. Dana dala, konpromisoa zorrotza ez izatea ondo ikusten izan dabe eta ideia orokorrean ona izan daitekela aipatu izan da. Eurak ikaskideen artean komentatuko dabela esan dabe.
- Bigarren ordua:
 - Alkateak Foren ospakizun honetara hurbildutakoei ongi etorria emon ostean, ikasturtean zehar egin beharreko lana aipatu eban, iraunkortasunaren gaia guztion erantzukizuna dala gogoratu eta etorkizuneko gizartea izango dirala esanez, forora hurbildutako ikasleei euren jokabidea guztiz



erabakiorra dala aipatu eban. Bere esanetan, gaur egun nahiko landua dago iraunkortasunaren aldeko jarduerak zeintzuk diran. Momentu honetan, zailena, jarrera horreek martxan jartzea izango litzatekela gogorarazi dau. Udaletxeko ordezkari ezbardinen aurkezpena egin dau ondoren alkateak. lan

- lazko azken foroan aipatutakoak gogoratzeari ekin deutse ondoren ikasleek.
- BIDEGORRIAK (Karmengo Ama Ikastetxeko ikasleak): laz aipatutakoa komentatu ostean
 - Udal ordezkariak, iaz aipatu eben Garbigune- Lauaxeta arteko bidegorria eraikitzea (FEDERek diruz lagundutako proiektua) eta Ziklagarritasun Plana gogora ekarri dabez. ziklagarritasun planaren funtsa, bizikletaz seguru ibiltzea gauzatzea izango litzatekelarik. Baina gainera, bizikletaren erabilera sustatzeko ikaslegoaren konpromisoa izatea guztiz garrantzitsua dala aipatu zan.
 - Udal zinegotziak, aurten, ikastetxe guztietan bizikletak izteko aparkalekuak jartzeko asmoa dagola aipatu dau. Hasiera baten, ez dira oso ugariak izango, baina argi itxi nahi izan dau, aparkalekuak erabiliak izan ezker, "txiki" gelditzen diranean, gehiago jartzeko daukan konpromisoa.
 - Argitu beharreko beste puntu bat lez, udal ordezkariak, bizikleta sare hori matxan jartzeko epea luzea izango dala adierazi dabe. Lan ezbardinak garatzeko, baldintza ezbardinak bete behar izango dira eta honek, lanak denporan zehar luzatzea suposatuko dau.
 - Ondoren, ikasleen ohituren inguruan aritu izan ziran udal ordezkari eta ikasleak, azken honeek eskolara bizikletaz joateko prest badagozan galdetuz. Honen aurrean, ikasleek adostasun handiz baietz esan eben.
 - PINTADAK/ ZIKINKERIA: (Larrea LHiko ikasleak). Aurreko ikasturtean esandakoak gogoratu ebezan
 - Udaletxeko ordezkariak, ikasleek eta herritar guztiek. Honen ildoan, aurrerago azalduko dan zabor bilketa bereiztuari buruz aritu zan Alkatea. Zornotzan, egunero zabor kantitate oso handiak batzen dira lurretik. Hau dala eta, txoko bereiztuak daukezan paperontziak jarri baino lehenago, lurrera ez botatzearen ardura indartu beharko litzatekela komentatu dau Davidek. Etorkizunean, paperontzi bereiztuak jartzea planteatu ahal bada, hoberantz pausu handi bat egin dalako izango da.
 - Zikinkerien ildoan, udalak, txakurren gorotzak kalean batu barik iztea ekiditzeko, ordenantza bat sortu dala azaldu zan. Tresna honek, gorotzak batu barik izten dauan jabeari isuna jartzeko aukera emoten deutso. Eraginkorra izateko era bakarretakoa daukagu isunena.
 - Alkateak, ikasleen aurrean, bakoitzaren erantzukizuna azpimarratu eban. Normala da gozoki denden inguruak zikin ikustea eta horretan ikasleek eta herriko gazteek berebiziko erantzukizuna daukela gogoratu eban.
 - Udal Ingeniariak, bestalde, kaleko hondakin kantitate handiaz aparte, zornotzarron jarrera positiboari buruz aritzeko aukera dagola azaldu eban, gure herriak berziklatze (arropa, papera, olio, etab.) ratio oso onetan aritzen baita, inguruko herri askoren gainetik. Horregaitik zornotzarrak zoriendu beharko litzatekezala azaldu eban.
 - ITURRIAK (El Carmelo Ikastetxeko ikasleak): Gai honen inguruan, iazko proposamen ezbardinak azaldu ziran udal ordezkarien erantzuna bilatu nahian..
 - Alkateak berak, uraren beharizanen inguruan hausnartu egin eban ikasleen aurrean, urarenganako garrantzia larregizkoa dala esanez. Ikasleek barriz, alkateari arin erantzun eutsen, ura agortu daitekeen baliabidetako bat dala esanez, zikateak izan daitekezala esanez eta arduratsu jokatu beharko litzatekela argituz.
 - Eztabaidarekin jarraituz, urari dagokion garrantzia indartzeko, alkateak, ikasleei azaldu eutsen herritarrek ez ebela uraren prezioaren arazoia ulertzen. Bere esanetan, Amorebieta- Etxanoko ur- horniketa zerbitzuak kostatzen dauana baino gitxiago ordaintzen da. Honek, ura, beste alde batetik lortutako diruagaz ordaintzen amaitu behar dala esan gura dau. Europatik datorkigun, uraren inguruko kontzientzia barriak barriz, urak eragindako gastuak, ura kontsumitzen dabenek bere osotasunean ordaindu beharko leukiela dino. Hau ez da Zornotzan gertatzen, barriz. Alkatearen esanetan,



urari dagokion balioa emon eta beharrezkoa dana bakarrik kontsumitzeko beharrezkoa da beragaitik ordaintzea. Dana dala, ikasle guztiak ez ziran esate honen alde agertu. Gainera, airearen egoeragaz konparatua izan zan, aire kalitatea ere txarrago dagoala esanez eta barriz, ez dogula ordaintzen aipatuz.

- Airea eta uraren horniketaren inguruan eztabaida txiki bat sortu zan, ura etxera eroateak dakartzan gastuak azaltzeko asmoz.
 - Iturriak, orain arte landu bako gaia izan dan arren, Eskolen arteko Foro honeetan aipatu izana eta ikasleei lantzeko gaia izatea suposatu izanak, udal ordezkarientzat ere lehentasunezko gai bihurtu dau. Oraintxe kaleko iturrietan ura aurrezteko funtzionamendua zelan aldatu daiteken ikusten ari dira, iturriak ura denpora gitxiagon edo kantitate txikiago baten bota dagien.
 - Urgozo iturriari dagokionez, etengabe ura emoten egotearen arrazoia gehienbat historikoa dala azaldu eban alkateak iazko foroan. Dana dala, momentu honetan, Zelaieta parkea barriztutzeko proiektuaren barruan, etengabeko ur jariora, hankarekin piztekoagatik aldatuko dabela komentatu dau. Erabaki hau ere Foro honetatik eratorritako proposamen baten ondorioz hartu da.
 - HONDAKINAK- Sentsibilizazio kanpainak eta hondakinen kudeaketaren garrantzia gogoratzean gai ezbardinak landu ziran foroan.
 - Alkateak eta Udal Ingeniariak aurretik azaldu daben moduan, oso garrantzitsua dira bakoitzaren ohitura egokiak mantentzea ingurumenaren alde jokatu ahal izateko. Lehen esandako berziklapen zenbaki onak aipatu dira barriro eta 25 urtetik hona gizartearengan egon dan garapenaren inguruan aritu izan da alkatea.
 - Bestalde, datuak gero eta hobeak izan arren ez dogu ahaztu behar, berziklatze kopuruak gorantz doazen neurri bardinean, gizartearen kontsumoa ere gorantz doala, ingurumen egoeran zuzenean eraginez. Alkateak, ikasleei, euren ohituren inguruan hausnartzeko eskatu eutsen, eta honek onartu egin eben eurak gai batzutan behintzat (opariak, jostailuak, zenbait janaritan) larregi kontsumitzen dabela. Partaide guztien artean, ados gelditu ziran, bakoitza gai izan behar dala kanpotik datorkigun eragina (publizitatea, eskaintza bereziak, etab) eta benetako beharizanaren arteko konparazioa egin eta arduratsu jokatzeari.
 - PAPELERAK (Urritze BHIko ikasleak): Foroaren garapenean zehar aipatu izan dan arren aurreko ikasturtean esandakoa gogoratu eben ikasleek.
 - Udaletxeko ordezkariek erantzuna aurretik emonda egoala esan arren, puntu hau udalak hondakinen inguruan egindako sentsibilizazio jardunaldien garapen ez oso arrakastatsuen inguruko informazioa emon eutsen ikasleei. Hitzaldi eta bisita gidatu bat eskaini jaken herritar guztiei dohainik eta guztira 4 pertsona etorri zirala. Beraz, gauza bi esan daitekezela honen inguruan: alde batetik udalak ez daukala komunikazioa egiteko bide erraza eta bestetik herritarren ardura, konpromiso ahalmena edo eskuragarri daukan denpora mugatua dala.
 - Gainera, lur azpiko kontenedoreak gero eta hedatuago egongo dirala esan eben. Honen inguruan ikasleek kontenedore kanpoko hondakinekin zer gertatzen dan galdetu eben. Udal teknikariak, hondakin horrek, batu egiten dirala baina ez dirala berziklatzen argi itzi nahi izan eban, ikasleek eurek jakin eta euren inguruan informazio hori igortzeko eskatuz.
- laz parte hartu izan eben ikastetxeetako ikasleek 2007rako hartutako konpromisoak gogoratu eta euren gainean udaletik egin dan lana azaldu ostein, Andra Mari Ikastoleko ikasleek, Eskolen Arteko Foroetan lehenengoz parte hartzen eban lez, euren ikastola eta proiektuaren barri emon eben, ikasturtean zehar aztarna ekologikoa murrizteko ahalegina egingo ebela esan eben eta 2008an Zornotzan euren eskutik antolatuko dan Ibilaldian parte hartzera gonbidatu ebezan bertara hurbildutakoak. (Ezin izan da sinadura egin)
 - Gogo onez jaso dabez parte hartzaileek gonbitea. Ibilaldia bera aztarna ekologikoa lantzeko tresna ona izan daitekela ere aipatu eban alkateak.
 - Horrenbestez, saioari amaiera emoten jako, ikasturte amaierako II. Fororako gonbitea zabalduz eta etorritakoei eskerrak emonez. Parte hartzaile guztiekin azkenean argazki bat atara da.